

Durangoko Udaleko “Bartolomé Ertzilla musika-eskola eta maila ertaineko kontserbatorioa” Erakunde Autonomoren 2024/2025 ikasturteko aldizkako diru-laguntzen beka arautzeko oinarriak.

1. artikulua.- Xedea

Maila ertaineko kontserbatorio profesionalean ari diren ikasleentzako beken deialdia arautzeko oinarriak ezartzea da ebazpen honen xedea. Deialdi honek, bada, Durangoko Udaleko diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzeko Ordenantzen 8. artikuluan ezarritako nahitaezko edukia jasotzen du.

Laguntzen helburua, hain zuzen ere, kontserbatorioaren zerbitzuak jasotzeko ikasleek ordaindu beharreko tasen zati bat ordaintzea da.

Honako beka hauek jasotzeko eskubidea izateko, ikasleen familien egoera ekonomikoari erreparatuko zaio lehenik; aintzat hartuko dira, orobat, ikasketa-curriculum eta bizikidetzaren unitatearen kide-kopurua (aitona-amonak kanpoan utzita).

Araudi honetan aintzatetsitako beka bateragarriak izango dira beste organismo publiko batzuek nahiz erakunde pribatuek xede berbererako emandako beka guztiekin. Nolanahi ere, ezin izango da sekula ikasketa-gastua baino diru-laguntza handiagorik jaso, eta, halakorik suertatuz gero, eman beharreko diru-laguntza murriztu egingo da, gastuaren zenbateko osoraino jaitsi arte.

2. artikulua. Onuradunak

Maila ertaineko kontserbatorio profesionaleko ikasleek Durangoko udalerrian erroldatuta egon behar dute, beken onuradun izateko.

3. artikulua – Eskaerak aurkezteko

Udalak eskaerak egiteko eskuragarri ipiniko dituen inprimakietan egin beharko dira eskaerak, eta Erakunde Autonomoaren Idazkaritzan aurkeztu beharko dira edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aipatutako lekuetakoren batean.

Hauexek izango da aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskatzailearen NAN edo pasaporte.
- Familia-liburua (NANaren edo pasaportearen

Bases por las que se regula la concesión de becas en concepto de ayudas económicas periódicas para el curso 2024/2025 por parte del Organismo Autónomo “Conservatorio Profesional de Grado Medio Bartolomé Ertzilla” del Ayuntamiento de Durango.

Artículo 1. Objeto

El objeto de esta resolución es el establecimiento de las bases reguladoras de la convocatoria de becas para ayuda a las alumnas y alumnos que cursen estudios en el Conservatorio Profesional de Grado Medio. Esta convocatoria tiene el contenido preceptivo que establece el artículo 8 de la Ordenanza Reguladora de subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango.

La ayuda tiene como objeto compensar el pago de parte de las tasas que el alumnado debe abonar para la percepción del servicio.

El derecho a la percepción de estas becas tendrá como punto prioritario la propia situación económica de las familias del alumnado junto con el currículo académico y el número de miembros de la unidad con vivencial, excluidos los abuelos.

Las becas reconocidas por la presente normativa serán compatibles con cualesquiera otras concedidas por Organismos Públicos competentes o instituciones privadas para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobre financiación del gasto, procediendo en tal caso la reducción de la ayuda a conceder hasta el límite del importe total del gasto objeto de las presentes ayudas.


Artículo 2. Beneficiarios

Podrán ser beneficiarias de las becas el alumnado del Conservatorio profesional de Grado Medio que esté empadronado en el municipio.

Artículo 3. Lugar y presentación y documentación

Las solicitudes se deberán presentar en la Secretaría del Organismo Autónomo o en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en los impresos que a tal efecto facilitará el Ayuntamiento. La documentación a presentar es la siguiente:

- DNI o pasaporte del solicitante.



ordez aurkez daiteke, ikaslea adingabekoa izanez gero)

- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azken aitorpenaren kopia, edo, bestela, Ogasun Sailaren ziurtagiria, errenta-aitorpena aurkezteko beharrik ez zegoela adierazten duena.
- Ondarearen gaineko zergaren aitorpena edo idatzi bat non aurkezteko beharrik ez duzuela esaten duena.
- Bereizketarik edo dibortziorik izanez gero, horren gaineko epaia.

4. artikulua. Epeak

Deialdi hau onartzen denetik 10 eguneko epean aurkeztu beharko dira diru-laguntzen eskaerak.

Deialdi honen berri onuradun izan daitezkeen ikasle guztiei emango zaie, eta, horrekin batera, ikastetxeko iragarki-oholean eta web-orrialdean ere argitaratuko da.

Eskaerak ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa nahikoa ez dela edo oinarri hauetan exijitzen diren betekizunak betetzen ez dituela ohartuz gero, hamar egun balioduneko epean formazko akats horiek zuzentzeko edo falta diren agiriak ekartzeko eskatuko zaio interesdunari. Hala egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela joko da, eta, horretarako, ebazpena emango da aurretiaz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan xedatutakoarekin bat.

5. artikulua.- Diru-laguntzen zenbatekoa

Onuradunen artean banatu beharreko gehieneko diru-kopurua HIRU MILA (3.000,00) eurokoa izango da, eta aurrekontuko 61.3261.48105. kontu-sailetik ordainduko da.

6. artikulua. Laguntzak emateko irizpideak

Bekak esleitzeko, jarraian azalduko diren alderdiak barematu ostean lortutako puntuazio-ordenari jarraituko zaio:

A.- Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak:

Urte osoko diru-sarrerak hartuko dira kontuan; zehatzago esan, bizikidetza-unitatea osatzen duten

- Libro de Familia (que puede sustituir al DNI o pasaporte en caso de que el alumno sea menor de edad)
- Copia de la última Declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o en su caso, Certificación del Departamento de Hacienda de la no obligatoriedad de su presentación.
- Declaración del impuesto de patrimonio o declaración jurada en la que conste que esta exento de declararlo.
- Sentencia judicial en caso de separación o divorcio

Artículo 4. Plazos

Las solicitudes de subvención deberán presentarse en un plazo de 10 días desde la aprobación de la presente convocatoria.

Esta convocatoria se repartirá a todo el alumnado potencialmente beneficiario y se publicará en el tablón de anuncios del centro y en la web.

El plazo máximo para la resolución de las solicitudes será de 3 meses.

Cuando se observe que la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes Bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas o del Procedimiento Administrativo Común.


Artículo 5. Cuantía de la subvención

La cantidad máxima a distribuir entre los beneficiarios será de TRES MIL (3.000,00) euros, realizándose el gasto con cargo a la partida presupuestaria 61.3261.48105.

Artículo 6. Criterios de concesión de las ayudas

La adjudicación de las becas se hará conforme al orden de puntuación resultante tras baremar los aspectos que se presentan a continuación:

A.- Ingresos de la unidad con vivencial:



kide guztien artean beka-deialdiaren aurreko urtean lortutako diru-sarrera likidoak hartuko dira kontuan — Eusko Jaurlaritzak gaur egun hezkuntza-arloko beka esleitzeko erabiltzen duen prozedura bera erabiliko da, beraz. Lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) zehazteko, hamabiz biderkatuko da deialdiaren aurreko urtean indarrean zegoen LGS.

Atal honetako puntuak banatzeko, ERANSKINEKO 1. taulako baremoak hartuko dira oinarri.

Eskatzaileak kanpoan geratuko dira, beren bizikidetzak-unitatearen diru-sarrerak LGSren laukoitzetik gora badaude.

B.- Bizikidetzak-unitateko kide-kopurua:

ERANSKINEKO 2. taulan aurkeztutako baremoa aintzat hartuta zehaztuko da puntuazioa.

C. Ikasketen ebaluazioa:

Fundazioaren mendeko zentron batean aurretiaz ikasketak egin dituzten beka-eskatzaileei soilik eragingo die.

Eskatzaileak lortutako batez besteko nota aintzat hartuta emango dira puntuak.

Horretarako, deialdiaren aurreko urtean eskatzaileak lortutako batez besteko nota hartuko da erreferentziatzat; eta lortutako notaren arabera emango dira puntuak, ERANSKINAREN 3. taulan jasotako baremoan adierazten den moduan.

Maila ertaineko lehen ikasturteko ikasleei dagokienez, musika-eskola batetik edo beste kontserbatorio batetik etorritakoak badira, Bartolomé Ertzilla kontserbatorioan sartzeko proban lortutako emaitza hartuko da kontuan.

Aurretik kontserbatorioan ziharduten ikasleei, berriz, honako haztapen honen arabera ezarriko zaie aurreko ikasturteko batezbestekoa:

- Ikasgai nagusiko nota (musika-tresna edo kantua): balioaren % 50
- Gainerako gaiak: ikasgai osagarriak % 50

Bost puntuko batezbestekora iristen ez diren ikasleak deialditik kanpo geratuko dira.

7. artikulua. Ikasturtearen finantzaketa ehunekotan

Ikasturtearen kostuaren zati bat finantzatuko da. Finantzatuko den ehunekoa ezartzeko, oinarri

Los ingresos se determinarán en cómputo anual y se tomarán en consideración las cantidades líquidas percibidas por el total de integrantes de la unidad con vivencial en el año inmediato anterior al de la convocatoria de las becas computándose de igual manera que actualmente lo realiza el Gobierno Vasco en el momento de otorgar becas en el apartado educativo. El Salario Mínimo Interprofesional (S.M.I.) se determinará multiplicando por doce el S.M.I. mensual vigente el año anterior al de la convocatoria. La puntuación para este apartado se otorgará teniendo en cuenta los baremos que marca la Tabla 1 del ANEXO.

Aquellos aspirantes que presenten ingresos de la unidad con vivencial superiores a 4 veces el S.M.I quedarán excluidos.

B.- El Número de miembros de la unidad con vivencial:

La puntuación se determinará teniendo en cuenta el baremo que se presentan en la Tabla 2 (ANEXO)

C. Evaluación académica:

Afectará exclusivamente a los aspirantes a beca que hayan cursado estudios con anterioridad en centro dependiente de la Fundación.

La adjudicación de puntos será efectuada en función de la nota media obtenida por el aspirante.

Para ello se tomará como referencia la nota media obtenida por el aspirante en el curso anterior al año objeto de la convocatoria.

En función de la nota obtenida se efectuará la asignación de puntos tal como se recoge en el baremo presentado en la Tabla 3 (ANEXO)

Para los alumnos/as de primer curso de Grado Medio procedentes de una Escuela de Música u otro Conservatorio se tendrá en cuenta la puntuación obtenida en la prueba de acceso al Conservatorio Bartolomé Ertzilla.


Par los alumnos/as que ya cursaban estudios en el Conservatorio el curso anterior la puntuación media se establecerá atendiendo a la siguiente ponderación:

- Nota de la asignatura principal (instrumento ó canto) 50% del valor
- Resto de materias: asignaturas complementarias 50%

Los alumnos que no alcancen una nota media de 5 puntos quedarán excluidos de esta convocatoria

Artículo 7. Porcentaje de Financiación del curso

Se financiará una parte del Coste total del Curso. El porcentaje a financiar se establecerá teniendo en



hauetako 6. artikulua A, B eta C goiburuetan barematutako alderdiak neurtuko dira, eta finantzazio-ehunekoa ERANSKINAREN 4. taulan aurkezten den hori izango da.

Kanpoan geratuko dira gutxienez 10 puntura iritsi ez diren eskatzaileak.

Emandako laguntzak, orotara, 3.000 eurotik gorakoak badira, proportzionalki hainbanatuko da eskatzaile bakoitzari hasieran esleitutako kopurua, laguntza-sorta aurrekontuaren gehieneko kopuru horri egokitzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen. Bi eskatzailek puntuazio berdina lortuz gero, A atalean ezarritakoaren arabera puntu gehien lortu duen horrek hartuko du aurreko tokia; eta, ostera ere, berdinketa egonez gero, C atalean puntuazio handiena lortu duena geratuko da aurretik. Hala ere, berdinketa hautsi ez bada, B ataleko puntuazio handienari egingo zaio kontu. Guztiarekin ere, berdinketa hausten ez bada, ikasle gazteenak edukiko du lehentasuna, nagusiaren gainetik.

Bigarren. Araudi honen ondorioetarako, bizikidetza-unitatetzat joko da ezkontza-loturarik egon ez arren familia-unitatearen pareko egitura duen unitatea.

Bizikidetza-unitatea dagoela egiaztatzeko, egoki irizten diren txostenak edo agiriak aurkezteko eskaera egin ahal izango da.

Hirugarrena. Beka eskatu duen ikaslearen bizikidetza-unitateak deialdiaren aurreko urtean lortutako diru-sarrerak 6. artikuluko "Bizikidetza-unitateko diru-sarrerak" atalean aurreikusitako muga gainditzen badute eta deialdiaren urte bereko diru-sarrerak, aldiz, ez badute muga hori gainditzen, salbuespen modura, azken urte horretako diru-sarrerak hartu ahal izango dira kontuan, eta egokitze jotako agiri guztiak aurkeztu beharko dira horretarako.

I. ERANSKINA

1. TAULA: Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak

LGSren 1,00 baino gutxiago	30 puntu
LGSren 1,00tik 1,50era bitartean	25 puntu
LGSren 1,51tik 2,00ra bitartean	20 puntu
LGSren 2,01etik 2,50era bitartean	16
LGSren 2,51tik 3,00ra bitartean	13
LGSren 3,01etik 3,50era bitartean	10
LGSren 3,51tik 4,00ra bitartean	8

cuenta los puntos obtenidos tras computar los aspectos baremados en el artículo 6 de estas Bases, Epígrafes A, B y C. El porcentaje de financiación será el que se presenta en la Tabla 4 del ANEXO.

Aquellos aspirantes que no hayan obtenido un mínimo de 10 puntos quedarán excluidos.

En el caso de que el conjunto de ayudas concedidas supere los 3000 euros, se prorrateará la cantidad inicial adjudicada a cada solicitante con el fin de ajustar todo el conjunto de las ayudas a este tope presupuestario

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. En igualdad de puntuación, ocupará el lugar anterior quien hubiere obtenido más puntos en base a lo consignado en el apartado A y, si continuara el empate, quien hubiere conseguido mayor puntuación en el apartado C. Si de esta manera, aun se mantuviera la igualdad, se atenderá a la mayor puntuación conseguida en el apartado B. Caso de continuar la igualdad, tendrá preferencia el alumno de menor edad sobre el de mayor edad.

Segunda. A efectos de la presente normativa se entenderá por unidad con vivencial la constituida, sin vínculo matrimonial, con una estructura similar a la de la unidad familiar.


Para acreditar la existencia de la unidad con vivencial, se podrá requerir la presentación de los informes o documentos que se consideren oportunos.

Tercera. Excepcionalmente, cuando el año anterior al de la convocatoria, los ingresos de la unidad con vivencial del alumno para el que se solicita beca, excedieran del límite previsto en Artículo 6, apartado A "Ingresos de la unidad con vivencial", y resultara que el año de la convocatoria, los ingresos, en relación con el de dicho año, no superan aquel límite, podrán tomarse en consideración los ingresos de este año, los cuales habrán de acreditarse mediante la presentación de cuantos documentos se consideren necesarios.

ANEXO I

TABLA 1: Ingresos de la Unidad Convivencial

menos 1,00 del S.M.I	30 puntos
de 1,00 a 1,50 del S.M.I	25 puntos
de 1,51 a 2 del S.M.I	20 puntos
de 2,01 a 2,5 del S.M.I.	16
de 2,51 a 3,00 del S.M.I.	13
3,01 a 3,5 del S.M.I.	10
3,51 a 4,00 del S.M.I	8



2. TAULA.- Bizikidetza-unitateko kide-kopurua

2 kide	2
3 kide	3
4 kide	5
5 kide	7
6 kide	9
7 kide edo gehiago	11

3. TAULA: Ikasketen ebaluazioa

Batez besteko nota 5etik 5,9ra	5 puntu
Batez besteko nota 6tik 6,9ra	6 puntu
Batez besteko nota 7tik 7,9ra	7 puntu
Batez besteko nota 8tik 8,9ra	8 puntu
Batez besteko nota 9tik 9,9ra	9 puntu
Batez besteko nota 10	10 puntu

4. TAULA: Finantzazioaren ehunekoa

40 puntutik 50era	Ikasturtearen kostuaren % 60
30etik 40ra	% 50
20tik 30era	% 40
10etik 20ra	% 30

TABLA 2: Numero de miembros de la Unidad Convivencial

2 miembros	2
3 miembros	3
4 miembros	5
5 miembros	7
6 miembros	9
7 ó más miembros	11

TABLA 3: Evaluación académica:

Nota Media 5 a 5,9	5 puntos
Nota Media 6 a 6,9	6 puntos
Nota Media 7 a 7,9	7 puntos
Nota Media 8 a 8,9	8 puntos
Nota Media 9 a 9,9	9 puntos
Nota Media 10	10 puntos

TABLA 4: Porcentaje de Financiación

De 40 a 50 puntos	60% del Coste total del Curso
De 30 a 40	50%
De 20 a 30	40%
De 10 a 20	30%